

Zenbat lan izan dituzu?

Ikasbiletik hartua eta IKAn moldatua

Sekuentzia honetan, lanaren eta lan-kontratuen inguruko testu bat irakurriko duzu. Aurretik, pasarte hau osatzea proposatzen dizugu:

Krisi ekonomikoaren aurretik, pertsona batek lan berean igaro zezakeen bizitza osoa, erretiroa hartu arte. Ikasketak amaitu bezain laster, lana topatzen zuen eta kito. Gaur egun, berriz, oso bestelakoa da errealitatea



1- Lan egoera

Aitor Bengoetxea Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak egungo lan-kontratuen egoera zein den azalduko digu bideo honetan. Bideoa ikusi ondoren, osatu laburpena, aukerarik egokiena eginez.

Aitor Bengoetxeak dio gaur egun gazteei oso gutxitan tokatzen zaiela **(1)**. Eta legez ohikoa izan behar duela **(2)**. Baina, zoritxarrez, errealitatean hori ez da betetzen. Izan ere, **(3)** % 8 edo % 9 izaten dira kontratu mugagabeak. Gainerakoak aldi baterako kontratuak izaten dira.

Garai batean zabaldua zegoen bizitza osoan lan bera egitea, eta **(4)** izaten zen. Baina, orain, iraultza digitalaren ondorioz, beharrak aldakorragoak dira. Enpresentzat gaur egun, **(5)** izaten aldi baterako kontratuak egitea, eta gainera, kontratu hori bukatzen denean, teknikoki **(6)** kontsideratzen.

Baina, kontratu mugagabea bukatzeko arrazoi bat behar izaten da, eta ondorioz, orain askoz aldi baterako kontratu gehiago daude, bereziki gazteen artean.



Aukerak:

- 1) kalitatezko lanak aurkitzea / kontratu finkoak izatea / epe luzerako lanak aurkitzea
- 2) kalitatezko kontratuak / epe luzerako kontratuak / kontratu mugagabeak
- 3) hilabetero egiten diren kontratu berrietatik / urtero egiten diren lan-kontratuetatik / hilabetero egiten diren zenbait kontratutatik
- 4) eskuz egindako lana / kalitatezko lana / lan finkoa eta mekanikoa
- 5) ez da batere errentagarria / ez da egunerokoa / ez da hain konprometitua
- 6) ez da kaleratzea / ez da lege-haustea / ez da kaltegarria

2- Lan-kontratuak

Irakurri erreportaje honetan zer dioen Aitorrek gaur egun egiten diren lan-kontratuei buruz. Erreportaje osoa irakurri ondoren, hurrengo orrialdeko galderei erantzun zeure hitzekin.

ZENBAT LAN IZAN DITUZU?

Azken urteetan lanari buruz ia egunero irakurri edo entzun dugu zerbait: langabezia-tasa, lan-erreformak, emigrazioa, soldatak... Krisi ekonomikoarena da errua, edo horren errua dela esaten digute behintzat. Horrek guztiak gure lan-kontratuetan izan du eragina, eta goitik behera aldatu da egoera.

Krisi ekonomiko ospetsuaren aurretik, pertsona batek lan berean igaro zezakeen bizitza osoa, erretiroa hartu arte. Ikasketak amaitu bezain laster, lana topatzen zuen eta kito. Gaur egun, berriz, oso bestelakoa da errealitatea. "Egiten diren lan-kontratu berrien artean, mugagabeak % 8 edo % 9 izaten dira; gainerakoak aldi baterakoak dira", azaldu digu Aitor Bengoetxeak. Aitor Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko irakaslea da Euskal Herriko Unibertsitatean, eta lanari buruz hitz egiteko elkartu gara berarekin.

LAN-KONTRATU MUGAGABEA vs ALDI BATERAKOA

Denbora-mugarik gabeko lan-kontratua da mugagabea: langileak zerbitzu finkoa eskaintzen dio enpresari, eta, enpresak segurtasuna eta egonkortasuna eskaintzen dizkio berari. Aldi baterako kontratuan, berriz, denbora mugatuko lan-harremana izango dute euren artean enpresak eta langileak. "Legearen arabera, aldi baterako kontratuak salbuespena dira, eta mugagabeak 'ohiko lan-kontratuak' izenarekin dira ezagunak. Barregarria da, ezta?".

Krisi ekonomikoa etengabe aipatzen dugu; guztiaren errua berari egozten diogu beti. "Neurri batean, krisi ekonomikoagatik da, baina oinarrian enpresen praktikak dira: konpromiso-maila baxuagoa dute aldi baterako lan-kontratuekin, eta, epea amaitzean, teorikoki ez dute inor kaleratzen. Errazagoa da eurentzat esatea: kontratua amaitu zaizu eta agur", kontatu digu. Dinamika hori legeak ez du aurreikusten, eta, hortaz, ez du zigortzen.

BATETIK BESTERA

Aldi baterako hainbeste kontraturekin, jendeak bat amaitu eta bestea bilatu behar izaten du. Zentzu horretan, gazteen egoera da kaskarrena, eta haiei tokatzen zaie batetik bestera ibiltzea: “Zer behar du pertsona batek lanarekin asebetetzeko? Soldata eta lanaldia dira gakoak, baita kontratu-mota ere. Hala ere, elementu emozioanalak kontuan hartu behar ditugu, oso garrantzitsua baita langilea bere lanean gustura sentitzea”.

Lehen enpresak handiagoak ziren: langile asko zituzten eta lanpostu finkoak ziren. Orain, berriz, aldatu egin da hori. “Ford autoen enpresa zen eredua, eta, testuinguru horretan, enpresak hainbat onura eskaintzen zizkien langileei: diru- laguntzak seme-alaben ikasketak ordaintzeko, soldata onak... Desberdintasun horren atzean, ‘kolektibo homogoneoa’ zegoela azpimarratuko nuke, langile asko eta asko baitzeuden teiltatu beraren azpian: sindikatuak, ordezkariak...”. Gaur egun, ordea, langileen arteko aniztasuna gero eta handiagoa da: “Jende askok etxetik egiten du lan, eta eredua zeharo aldatu da. Ezinezkoa da lehen aipatutako lan-baldintza horiek errepikatzea”, kontatu digu.

ETORKIZUNA

Etorkizunean zer gertatuko den aurreikustea oso zaila da, eta horixe esan digu Aitorrek ere: “Iraultza digitalaren zurrumbiloan gaude, eta horren ondorioak zein izango diren jakitea oso zaila da. Langile mugimenduaren historian lortutako aldaketak gertatzeko, langileek elkartu eta presio egin izan dute beti. Esan bezala, une honetan egoera kontrakoa da, presio-gaitasun txikia du langileen mugimenduak eta lan-baldintzak txarrak dira”. Hala ere, langileen esku dagoela esan digu EHUko irakasleak, eta aldaketarako baldintzak berriro ere sor daitezkeela uste du.



1. Zer desberdintasun aipatu ditu Aitorrek lan-kontratu mugagabeen eta aldi baterako artean?
2. Enpresek zergatik nahiago izaten dute aldi baterako kontratuak egitea?
3. Nola ikusten du etorkizuna Aitorrek? Egungo lan-baldintzak hobetzeko aukerarik ikusten du?

1- Lan egoera

1) kontratu finkoak izatea, 2) kontratu mugagabeak, 3) hilabetero egiten diren kontratu berrietatik, 4) lan finkoa eta mekanikoa, 5) ez da hain konprometitua, 6) ez da kaleratzea

2- Lan-kontratuak

1. Zer desberdintasun aipatu ditu Aitorrek lan-kontratu mugagabeen eta aldi baterakoen artean?

Lan-kontratu mugagabeen enpresak segurtasuna eta egonkortasuna eskaintzen dizkio langileari, eta langileak enpresari zerbitzu finkoa ematen dio. Aldiz, aldi baterako kontratuan, enpresaren eta langilearen arteko lan- harremana denboran mugatuta dago.

2. Enpresek zergatik nahiago izaten dute aldi baterako kontratuak egitea?

Kontratu horiek eginda, enpresek konpromiso-maila txikiagoa hartzen dutelako eta behin kontratuta amaituta teoriarik ez dutelako inor kaleratzen.

3. Nola ikusten du etorkizuna Aitorrek? Egungo lan-baldintzak hobetzeko aukerarik ikusten du?

Aurreikuspenak egitea oso zaila ikusten du. Gaur egun, langileen mugimenduak lehen baino presio-gaitasun txikiagoa duenez, lan-baldintzak eskasagoak dira. Hala ere, Aitorrek uste du langileen esku dagoela aldaketarako behar diren baldintzak sortzea.